

Bizi, zertarako?

*Gau hotz eta ilunean,
euri eta trumioiez babesturik,
ohean etzanda nengoela,
buruari eragin nion.*

*Eta zera pentsatu nuen:
Zertarako?
Zertarako bizi?
Sufritzeko?*

*Eta bitan pentsatu barik
erantzunaren bila edo abiatu nintzen,
ametsen mundura,
azalpen ulergarri baten eske.*

*Leihotik begira jarri,
farola zahar batek argitutako kalera.
Kristalean euri-tantonek tupust egin
eta eskaintzen zuten musika-kontzertuaren konpainiaz,
espedizioan joan nintzen...*

*Existenziaren oinarria aurkitu nuen lehenik,
maitasuna.*

*Amodioa da gure bizitzaren eragilea...
Eta zertarako bizi?
Zertarako maitatu?
Sufritzeko?*

Erantzuna ez zen erraza topatzen.

*Mutil bati emandako lehen musua,
oroitzapen ederrak,
harekin bizitako momentu politak,
une bereziz gainezka egiten zuten abenturek.
Eta mutil harri emandako azken musua,
oroipen gogorak, baina ahantzezinak.*

*Bigarren mutilarekin hasitako ipuina,
lehenengoaren aurkakoa:
misterio berriak,
memento berriak,
sentipen berriak,
memoria berridatziak.
Amaiera ere iritsi zen,
Ez horren malenkoniatsua,
baina nahiko atsekabetsua.*

*Eta hirugarrena,
hirugarrena eta azkena,
orain arte behintzat...
Behar dudala konturatu naiz,
ezin dudala egun batetik bestera ahantzi.
Aurreko biek baino gehiago sentiarazi didala,
eta hau onartzea ez da erraza.*

*Eta sentimendu berri hau
berezia da.
Orain arte ezkutuan,
sekretuan,
isilean mantendutakoa.*

*Berak ere min egiten dit,
isildu egiten naiz.
Negar egiten dut,
bakarrik egoteko gogoia eragiten dit...
Bizitza maitasuna baino gehiago dela
konturatzen naiz.*

*Baina gertu daukadanean,
Zoriontsu naiz,
zoriontsu egiten nau.
Beste pertsona bat naiz,
mundua beste begi batzuek ikusten dut,
orain arte itsuturik egon naizela dirudi.*

*Bizitzak beste kolore bat hartzen du,
beste zentzu bat,
norbait maite duzunean.
Momentu onak momentu txarrekin
orekan jartzen dira,
eta zentzua ematen diote
mende batez edo
irauten duen prozesu gorabeheratsu honi.*

*Beraz, bai;
erantzunari estalkia kendu nion,
sekretua errebelatu nuen.
Azkenean,
ondorio honetara iritsi nintzen:
bizitza maitatzea da,
maitatzea sufritzea da,
sufrituz esperientzia berriak izatea.
Orduan, sufritzea maitatzea eta
maitatzea bizitza denez,
hauxe da bizitza,
sufritzea.*

ZENTZU